

zer ote?

Zizurkilgo aisialdirako gida

gaztelaraz



Zizurkiletik Irlandara



Zk. 180/ Udazkena 2019 AZAROA | www.zizurkil.eus / 943 691 012

Ernio Bidea 9A, behea, 20159 ZIZURKIL

KULTURA

ERAKUSKETA

EXPOSICIÓN

XANTI ESNAOLAren lanen ERAKUSKETA.
Azaroaren 4tik 29ra.



SUKALDARITZA IKASTAROA

CURSILLO DE COCINA (caza y cocina sencilla para Navidades)

ATXULONDO TABERNAN, 19:00etan
XABI TELLOrekin.
Prezioa: 15 € ikastaro bakoitza
- Azaroak 12: Ehiza.
- Abenduak 10: Gabonetarako menua.



DIRU-LAGUNTZEN BIGARREN ZATIAREN ZURITZEA

JUSTIFICACIÓN DE AYUDAS

Udalak 2019 urtean eman dituen diru-laguntzen zuritzea egin beharko da, urtea amaitu aurretik. Horretarako, diru-laguntza jaso duten taldeek urteko ekitaldien memoria eta fakturak aurkeztuko dituzte. Dokumentazio hori aurkeztu ondoren, Udalak diru-laguntzaren %25 ordainduko die.

SANTA XEXILI

PASACALLES

2017-11-22

Loatzo Musika Eskolako ikasleek kalejira alaia eskainiko dute Zizurkilgo kaleetan zehar, musikarien eguna ospatzeko, 18:30ean. Atxulondotik abiatuta Ugare auzoraino joango dira. Han emanaldi labur bat eskaini ondoren, berriz ere Plazara itzuliko dira eta estalpean bigarren kontzertua eskainiko dute. Ondoren, txokolatea banatuko da musikarien artean.

PLAZIDA OTAÑO LIBURUTEGIA



2019-11-16
IPUINEN UNIBERTSOA FAMILIAN
11:30ean.
Aiztondoko Gazte Asanbladaren eskutik.

TERTULIA EN CASTELLANO

2019-11-26
MONICA LEIVAK
gidatutako gaztelarazko TERTULIA 18:00etan.
"CISNES SALVAJES" liburua mintzagai.





Bukalai Dantza Taldeak antolatuta, goizeko 11:30ean Plazan herri desberdinetako dantzari taldeak elkartu eta kalejira egingo dute herrian zehar. Ondoren, estalpean talde bakoitzak bere emanaldia eskainiko du (eguraldi txarra eginez gero, Dantzari eguna Intxaur frontoian ospatuko da).

**TEODORO
HERNANDORENA
XIX. IPUIN LEHIAKETA**

Andoain, Aduna, Alkiza, Asteasu, Amasa-Villabona, Anoeta, Irura, Larraul eta Zizurkilgo herritarrek parte hartu ahal izango dute, bost maila ezberdinetan: A maila: 6-8 urte; B maila: 9-11 urte; C maila: 12-13 urte; D maila 14-16 urte; eta E maila: 17 urtetik gora. Lan bakoitzaren hiru kopia entregatu beharko dira, azaroaren 20ko eguerdiko 14:00ak baino lehen Zizurkilgo Udal Bulegoetan. Oinarriak ere eskuragarri daude bertan.

2019

PLAY

ZIZURKIL

PLAZIDA OTAÑO **ZIZURKIL**
LIBURUTEGIKO
III. BOOKTRAILER LEHIAKETA

Bi modalitate: norbanakoena eta taldekakoa (hiru edo lau taldeak).

Taldeakako arloan, epaimahaiak bi multzotan banatuko ditu lanak: DBH1-2 multzoko lanak eta DBH3-4 multzokoak. Hortaz, bi sari nagusi banatuko dira multzo bakoitzeko.

Norbanakoen modalitatean ez da bereiztuko adinik baina saritzerakoan kontuan hartuko da adina eta lanaren kalitatea.



2019-11-25

**EMAKUMEENGANAKO
INDARKERIAREN
KONTRAKO
NAZIOARTEKO EGUNA:
AIZTONDOKO
TALDE FEMINISTAK**

ekintza bateratua egingo du
hiru herrietan:

18:30ean: Asteasun ekitaldia.

19:15ean: Zizurkilen ekitaldia.

20:00etan: Villabonan ekitaldia.

BESTELAKOAK

2019-11-09
GAZTAIN JANA

Herriguneko Zentroan 21:00etan.
Menua: entsalada, kostilla eta gaztainak.
Aurrez izen eman behar da Zentroan edo
Iriarten.

2019-11-17
SAN MILLAN EGUNAREN
OSPAKIZUNA

11:00etan, meza; 12:00etan, kalejira
soinu-joleekin, eta 14:00etan bazkaria.

KIROLA

**2019-11-15:
TOURREKO LEHENENGO
TXIRRINDULARI
EUSKALDUNARI
OMENALDIA:**

21:00etan, Urkamendi elkartean,
Mikel Landa
txirrindulariari omenaldia. Zorionak!

GAZTERIA

GAZTEZULOTIK IRLANDARA HIZKUNTZA GUTXITUEN PROIEKTUAREN ARIRA:

Urriaren 29tik azaroaren 4a 8 gazte zizurkildar joan dira Galway-ra (Irlandara) hizkuntza gutxituen inguruko proiektu batean parte hartzera.

Zizurkil, Elgoibar, Donibane Garazi (Iparralde) eta Galwayko (Irlanda)
32 gaztek astebeteko egonaldia egingo dute Irlandan,
Europako gazteen mugikortasun programa baten barnean.

Denak hizkuntza gutxietuetako hiztunak izaki, beren errealitatearen berri emateko eta elkarren esperientzietatik ikasteko aukera izango dute. Irlandako egonaldian, gaelikoaren egoera ezagutzeko aukera izango dute Euskal Herriko gazteek.

Gerora, bigarren egonaldi bat egingo dute proiektuan parte hartuko duten gazte guztiek, Euskal Herrian, abenduaren 2tik 8ra bitartean, euskararen egoeraren berri emateko Irlandatik datozen gazteei.

